



ESCORT KIDS

Athletic Clubek Escort Kidserako jarduera-protokoloaren berri eman du. Escort Kids ekitaldian, **12 urtetik beherako haurrak lehen taldeko jokalariekin batera irtengo dira futbol-zelaira** Elche CF taldearen aurkako partidari, maiatzak 28, 19:00tan.

BALDINTZAK

Ekitaldi hori 5 eta 12 urte bitarteko Athletic Clubeko kideentzat soilik da. Klubak ez die zozketan parte hartzen utziko kide ez diren edo adin-tarte horretakoak ez diren haurrei.

SARRERA-KOPURUA ETA BANAKETA

Gehienez 22 sarrera egongo dira: 11 sarrera, Athletic Clubeko kide diren titular txikientzat, eta beste 11, haurrekin doazen guraso edo legezko tutoreentzat (bat haur bakoitzeko).

ESLEITZEKO SISTEMA

1. Baldintza guztiak betetzen dituzten Athletic Clubeko kide guztiak eman dezakete izena web-inprimaki honetan. Epea maiatzaren 21era arte egongo da irekita. Haurren izen-abizenak, bazkide-zenbakia, jaioteguna eta tutorearen harremanetarako telefono-zenbaki bat adierazi beharko dira.
2. Haur bakoitzak behin bakarrik eman ahal izango du izena.
3. Epea amaitu eta hurrengo egunean, zozketa egingo da eskatzaileen artean, eta irabazleen Athletic Clubeko bazkide-zenbakia argitaratuko da. Gainera, Kluba guraso edo tutoreekin harremanetan jarriko da, telefono bidez, baimen-agiriaren bila joan daitezten.
4. Irabazleen guraso, tutore edo legezko ordezkariak baimen-agiria sinatu eta clubathletic@fundacionathleticclub.eus helbidera bidali beharko dute maiatzaren 26ko (ostirala) 9:00ak baino lehen. Bestela, ekitaldian parte hartzeari uko egiten diotela ulertuko da.
5. Irabazleen guraso, tutore edo legezko ordezkariak, horiekin batera, partida egunean bertan jasoko dute sarrera, klubak adierazten dituen jarraibideen arabera.

ZELAIRA IRTETEKO PROZEDURA

1. Partida hasi baino 60 minutu lehenago egon behar dute bertan maiatzaren 28an 18:00etan.
2. Zelaira joateko, kazetarien sarbidea erabili behar dute. La Campa de los Ingleses tabernaren ondoan dago, 0 atean.

ATHLETIC CLUB

ERAKUNDEAREN EGOITZA - SEDE SOCIAL - HEAD OFFICE
Palacio Ibaigane. Alameda Mazarredo, 23 48009 • Bilbao (Bizkaia) • T. +34 94 424 08 77

SAN MAMÉS ESTADIOA - ESTADIO - STADIUM
Rafael Moreno Pitxitxi s/n 48013 • Bilbao (Bizkaia) • T. +34 944 06 18 98

KIROL INSTALAZIOAK - INSTALACIONES DEPORTIVAS - SPORTS CENTRE
Garaioltza, 147 • Lezama (Bizkaia) • T. +34 94 455 60 88

www.athletic-club.eus





3. Hurrekin joango diren guraso, tutore edo legezko ordezkariak soilik jaso ahal izango dute sarrera, aldez aurretik baimena jaso ondoren eta NANA aurkeztuta.
4. Pertsona horiek, aldez aurretiko baimenarekin, eta Athletic Clubeko langileek aldageletaraino lagunduko diete hurrei. Han, aldatu eta Athletic Cluben elastikoa jantziko dute. ATERPE hurrak babesteko protokoloari jarraituko zaio une oro.
5. Laguntzaileek San Mameseko skybox batetik ikusi ahal izango dute hurrak nola ateratzen diren futbol-zelaira. Ekitaldia amaitutakoan, hurrekin batera partida ikusi ahal izango dute.
6. Klubeko langileek aldageletako tunelera lagunduko diete hurrei; han, lehen taldeko jokalarien zain geratuko dira.
7. Haur bakoitza jokalaria baten ondoan jarri eta harekin zelairatuko da.
8. Zelaian daudenean, jokalaria horren aurrean jarriko da hasierako formazioan. Jokalarien zerrendako izenak esan ondoren, hurrak zelaitik irtengo dira.
9. Klubeko langileek skyboxeraino lagunduko diete hurrei, partida laguntzaileekin ikus dezaten.

DATUEN BABESA

Zozketan parte hartzeko izena ematean, sarrera hartu eta estadiora joatean, ekitaldi honetan parte hartzen duten haurren gurasoek edo legezko tutoreek BAIMENA EMATEN DUTE semearen edo alabaren irudiak hartzeko eta/edo ahotsa grabatzeko, 2022ko maiatzak 28 Escort Kids Esperientzian parte hartzen duten bitartean. Horretarako, ATHLETIC CLUBi lagatzen dizkiote irudi-, izen- eta/edo ahots-eskubideak, edozein euskarritan eta edozein komunikazio-modutan erreproduzitu, argitaratu edo erabili ditzan.

DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA

Zozketa/lehiaketa hau kudeatzeko (izena ematea eta parte hartzea, lehiakideekiko harremana eta komunikazioa mantentzea, sariak kudeatzea, lehiakideei gure jardueri buruzko informazioa bidaltzea, lehiaketa berriak eta abar), parte-hartzaileen datu pertsonalak tratatu behar ditugu (izena, abizenak, helbide elektronikoa, telefonoa eta, lehiaketaren arabera, nick-a eta irudia). Oinarri hauek onartzeak gure pribatutasun-politika berariaz onartzea dakar: <https://www.athletic-club.eus/politica-de-privacidad>. Tratamenduaren arduraduna ATHLETIC CLUB da, Mazarredo Zumarkalea 23, 48009 Bilbo; Tel.: 94 424 08 77. Posta elektronikoa: rgpd@athletic-club.eus

Tratamendu hori parte-hartzailearen adostasunean oinarritzen da, zeinak lehiaketan parte hartze hutsagatik ematen baitu (bere datuak aurkeztea ezinbestekoa da parte hartu ahal izateko, eta ez baditu ematen, ezin du lehiaketan parte hartu). Irabazleen datuak, hala badagokio, saria emateaz arduratzen diren enpresei jakinaraziko zaizkie, ATHLETIC CLUB edo ATHLETIC CLUB FUNDAZIOA ez direnean, saridunak identifikatzeko eta sarirako sarbidea emateko. Ez dugu nazioarteko datu-transferentziarik egiten.

Irabazleek, oinarri hauek onartzeagatik, baimena ematen digute beren datu pertsonalak (irudia barne) erreproduzitzeko irabazle suertatu diren sariarekin lotutako edozein publizitate- edo sustapen-jardueratan, eta erabilera horrek ez die inolako ordainsaririk edo irabazirik emango, irabazitako saria bera izan ezik. Baimena ematen baduzu, dagokion laukia markatuz, gure jarduera, produktu edo zerbitzuei buruzko merkataritza-informazioa bidali ahal izango dizugu.

Datuak eskuratzeko, zuzentzeko edo ezabatze eskubideak erabil ditzakezu, besteak beste, gure pribatutasun-politikan ikus dezakezun informazio gehigarri eta osoa zehazten den moduan <https://www.athletic-club.eus/politica-de-privacidad>. Zure ustez datuak babesteko eskubidea urratu bada, hona jo dezakezu: rgpd@athletic-club.eus. Halaber, Datuak Babesteko Espainiako Agentzian kexa edo erreklamazioa aurkezteko eskubidea duzu. Horri buruzko informazio gehiago: www.agpd.es